


Bizkaitarrei Bizkaieraz

7ER

368n. zenbakia • 2011 Epailla



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

Nafarroa 1200. urtea



Euskalerria
edo Euskadi

Urteroko Batzar Nagusia
Epaillaren 31ean

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2010-2011 IKASTURTEA

**BIZKAIERA 43. IKASTAROA
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

**43.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN**

Egunak: astelen, eguasten eta barikuetan edo
astearte eta eguenetan

Días: lunes, miércoles y viernes,
o martes y jueves

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Horas: Mañana, tarde y noche

Ordaña: 140 €

Curso completo: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao

Asiera: urriaren 11an

Comienzo: 11 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Salla
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com

EUSKERAZALEAK

Urteroko Batzar Nagusia

Martiaren 31. egunean
EUSKERAZALEAK alkarteak urteroko
Batzar Nagusia egingo dau
Lenengo deia: 19:00etan eta
Bigarren deia 19:30 etan

GAIK

Aurkespena : Zuzendariak
Urteko kontuak: Diruzaiñak
Urteko ekintzak: Zuzendariak
Batzordekide barriak, balegoz
Erreguak eta eskariak

ZUZENDARIAK

Asamblea General Anual

El 31 de Marzo celebrará la Asociación
EUSKERAZALEAK su Asamblea General
anual

Primera convocatoria 19:00 tarde
Segunda convocatoria 19:30 tarde

ORDEN DEL DIA:

Presentación : El Presidente
Cuentas anuales: La Tesorera
Actividades anuales: El Presidente
Nuevos miembros de la Junta si hubiere
Ruegos y preguntas

EL PRESIDENTE

Bilboko jaietako euskal erromeria



Jaietako egitarau ofizialean erromeria, domekarik domekara egunero, arrastiko 8etan asteko ordua iragarrita egon da. Aurton, oster, erromeria, iru egunetan gitxienez, iragarritako ordurik sano gora asi da. Belu. Bateko, eguenean eta barikuan aurreko jantza erakustaldia beraren ordutik kanpo amaitu zan sano, erromeriari, egun bakotxean, ia ordu erdi kenduta. Ordua ordu, txo! Ori ez eze, barikuan bertan be, oiko amaiera ordutik, gaueko 10etan, baino ordu erdi leenago amaitu zan, flamenko kitarrajoleak probak egin bear ebazala-eta. Bertan begira egon gintzazan plaza-jantzariok eskuak bete euli itzita, ze inork be ez euskun murtik esan edo iragarri aren ganeko. Baia besteko, ganorabakokerietan gorenik bada, azken domekan be, asikerako ordu erdian ez zan bape musikaririk agiri, jantzarien artean borondate oneko txistulari batek musikaririk ezearen lekua bete artean, ordainduta egon barik, jakina.

Baia au guztiau ez da gaur goizeko ogia, atzoko ogi gogorra baino, ze bai igaz baita igazleenean be antzeko ganorabakokeria bizi bear izan genduan bertaratutako erromeriazaleok. Zaarrak barri.

Euskal erromeria jaietako Mari-errauskiñe biurtu da, aurki. Ez dau aspaldian ondo funzionetan. Eta or eratzailen itzikeria, ardurabakokeria eta ganorabakokeria, azken baten, agirikoak dira sano. Jaietako batzordekoeri eskatu gura deutset, neure eta erromeriazale askoren izenean, datozen urteetan erromeria eratzeko ardurea erromeriazaleonganako ardura eta begirunerik txikerrena erakutsiko deuskuezan beste eratzaille batzuen eskuetan iztea, arren.

**Iniaki MARTIARTU
BAKIO**

Erriberri-Olite

Nafarroa 1200. urtea (I)

1200 URTEKO NAFARROA MENDEBALDEKO LURRALDE GALERA ETA MUGA BARRIEN INDARTZEA: VIANAKO GERTAERA (1219).

1200 urte inguruan Gaztelako Alfontso VIII-ak (1158-1214) Araba, Gipuzkoa eta Durango aldeko lurak bereganatu ebazaneko ikerketa oraindik zailtasun ugari artean dabil, batez be egungo agiritegietan aipamen zeatz gitxi aurkitzen dalako garai aietako gertaeraz. Eztabaidatsua da alaber, agiritegien utsune ori batzuk sarritan erabilli izan dabelako argudio politikoak luzatzeko, batez be Espainiak Euskal Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoarekin dabezan arremonak oñarritzeko. Gaurkoa ulerteziña iaku aurreko mendeetako gertaerak kontutan artzen ez badira, euskal lurak askoz leenagotik Nafarroako erresumak zein Gaztelakoak bereganatu naian ibilli ziran eta.

1076 urtean erresuma banatzea

Iruñako erresumak IX mendean Santxo IIIa Andia-rekin (1004-1035) izandako sendotasuna, apaldu egin zan mende orren bigarren aldian, batez bere Naiarako Gartzia Sanchez IIIa (1035-1054) iltzean eta Santxo Garces IVa Peñaluengokoa (1054-1076) erailla izandakoan. Une larri arietan Gaztelako Alfontso VIa (1072-1109) eta Aragoiko Santxo Ramirez (1063-1076) erregeek esku artu eben nafarren lurraldean barneratzeko eta erresuma bien artean banatzeko. Gaztelako erregeak beretzat artu ebazan Araba, Bizkaiko Jaureria, Durangaldea Gipuzkoako zati andia eta Ega ibaiko eskuma aldea, eta orrein gain Errioxako lurak, Nafarroako beste zatia Aragoiko erresumak bere eginez. Egoera orretan bertoko noblezia alde baten ala bestearen alde lerrotu zan, batzuk Gaztela eta besteak Aragoi eta Irunaren alde. Gaztelako erregearekin oso lotuta geratu ziran Bizkaiko Kondea zan Iñigo Lopez, bere semea Lope Iñiguez eta Diego Lopez Haro. Urrengo urtetan (1109-1116) Gaztelak bereganatutako lur geienak Alfontso Ia Borrokariak (1104-1134) berreskuratu ebazan, aldakuntza batzuk lortuaz. Egin ebazanen artean, Goi Errioxako Naiarako agintea 1116 urtean Fortún Garcés

NAFARROAKO ERRESUMA SANTXO VII INDARTSUAREN GARAIAN (1194-1234)



	NAFARROAKO ERRESUMA 1234 urtean
	FEUDALISMOAREN EDADURA MENDIZ BESTALDE
	GAZTELAK BEREGANATUTAKO LURRAK
	GAZTELAKO ALFONTSO VIIIak ARTUTAKO LURRAK

Cajal-i emoteak aurreko agintari Diego Lopez Haro-engan eraso egitea eragin eban. 1124 urtean eraso errepikatu eban, oraingoan Konde Lapurrarekin batera. Azken onek aragoitarrekin bakeak eginez Arabako Jaun geratzean, Diego Lopez Gaztelara urrunduzan¹.

1 .- MARTINEZ DIEZ, G., *Álava medieval*, Tomo I, Diputación Foral de Álava, Vitoria, 1974, 99-104 orr.

Biana, San Pedro eliza eta bere harresiak



Erresumaren berreskurapena (1134)


1076 urtetik aragoitarren esku izan ondoren, Iruñako erresumak lurraldea eta burujabetza politikoa berreskuratu ebazan 1134 urtean Alfontso Ia Borrokalaria oñordekorik gabe zenduzanean. Il aurreko aginduetan Iruña eta Aragoiko erresuma ordena militarrei eta Jerusalemgo San Joan ospitalekoiei itzi eutsen, baña esku artu ezin izan ebenez, Aragoiko agintaritza Ramiro I.a Monjea (1134-1157) eta alaba Petronilarentzat (1157-1164) geratu zan, azken au Bartzelonako Kondea Ramon Berenguer IVarekin ezkondua zana. Nafarroako zatia Gartzia Ramirez IVak artu eban (1134-1150)². Bitartean, Gaztelako Alfontso VIIak (1126-1157) Errioxako lurrak berreskuratu naian Errioxa artu eban, Logroño ezik, au nafarren esku jarraituz, eta gerora Zaragoza.

Gaztelako erregearen leenengo neurri artean Lopez Diaz Harori Naiarako agintaritza itzultzea izan zan eta Nafarroako erregeak bere alde men egitea, orrela Iruñako erregearen agintea aulduz. Men orren bitartez, Gartzia Ramirez IVak errioxar lurraldeen agintaritza itzi eban eta aldi berean Islama aurrez aurre mugan edukitzeari, Ebro ibaia geratzen zalako muga gisa, Logroño eta Tuteran salbu. Alfontso VIIak Aragoiko erregeari Zaragozako iria emon eutsonean (1136), Irunakoa asaldatu egin zan. Liskarrean, Alfontso VIIak Konde Lapurra atxiki eban, eta onek, menpeko geratuz, Araba bereganatu eban, baña ez Bizkia eta Gipuzkoa, bere seme Vela Lapurraren esku jarraitu eban eta. Gerora, 1147an, Irunako agintea berreskuratzean iru euskal lurraldeen agintea lortu eban³. Geroztik nafar erregeak bein eta barriro aurre egin bear izan eutsen erresuma zatitu nai eben Gaztela eta Aragoiko erregei (1140, 1151, 1179 y 1198).

Paula Martinez Hernandez


Patxi Otamendik euskeratuta

Biana



2.- MIRANDA GARCIA, F., *Navarra, Historia, Pamplona, Gobierno de Navarra, Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana, 2002, 70 orria.*

3.- RIVERA BLANCO, A., *Historia de Álava, Nerea, San Sebastián, 2004, 121-123 orr.*



Yurreko Gloria

(Iruarrizaga L.(+1928)n oroiz)

-1-

ERREKOTZE auzoko
 arboladitxuan,
 txori bi txatxanduta
 ikusi nebazan.
 Urrengo egun baten
 ernaldū ostean,
 kabi goxo goxoa,
 eiten asi ziran.

-2-

Ekin eta ekiñez,
 alkarri lagunduz,
 amaitu eben kabia,
 ederto apainduz.
 Beingoan, txori-amak,
 ugari errutuz,
 zazpi kume politak,
 bizira ekarri deuz.

-3-

Txori-arra poztu da
 ori ikusiaz
 ta kantetan asi da,
 zerutar doñuaz.
 Zazpi kumetxuak be,
 alangoa entzunaz,
 asi dira abesten
 bikain ikusiaz.

-4-

Euren artean,baña,,
 geien dakiena,
 zalantza barik, dogu
 euren buru dana.
 Abots ederra deuko,
 ozena ta leguna,
 erresiñula dala
 esan leitekena.

-5-

Areitz luze bateko
 adar erpiñetik,
 edatzen ditu kantak,
 danak txunditurik.
 Eztago, iñon, belarri
 edo ta biotzik,
 soñu zoragarriaz
 xamurtzen eztaunik.

-6-

Egun batean, barriz,
 au samingarria!
 ixildu da guztiz
 txori kantaria.
 Agur,ba, txori maite
 ta zoragarria,
 betiko izango zara
 Yurreko gloria!

olerkia

Munetxek

Bilbo-10.09.01

Lekeitioko Somatena

*Jatorriz Kataluñakoa da. Erakunde zibilla, armatua ta gualostetik aparte dagona.

Bere egin bearra erriko barealdia zaintzea da. Bakea, Bakea, beti Bakea, dauko ikur-itza lez.

Monsserateko Ama Birjiña, Zaindaritzat onartzen dau.

*Gorabera batzuk izan dauz bere istorian zear. Primo de Riveraren matxinada ostean arrakasta andiz España osoan edatu zan.

*1923ko Irailaren 17an, Errege Aginduaren arabera, Lekeitioko Alkate Leon Okamika ta Idote Jaunak urte bereko Urriko 13an kaleratu eban agindu bat esanaz 23 urtetik ta fama onaren jabe ziranak, Lekeitioko Somatenean izena emon eikie-la Guardizibillen Kuartelean edo ta Udaleko idazkaritzan izenpetuz.

*Erakunde onetan bazkidetuak ia amabiraño eldu ziran. Leonidas Hilarion Martinez de Torres Jauna talde buru egin eben eta Manuel Garabilla Zabala jauna talde-buru ordeko. Biak Logroñon jaiotakoak.

*1925ko abenduaren 20an meza bat ospatu zan parroko eleizan, Zita emperatriz oia, bere seme ta probintziko agintarien aurrean. Meza ostean bandera bat bedeinkatu eban Juan Cruz Larruzea Bi-

karioak, Rosario Endeiza anderea ta Rafael Muñoz jauna amabitxi-aitabitxi izanaz.

*Onein itzaldi ostean Hotel Beitiara abiatu ziran deitutako guztiak goxari egokia gozatzeraz.

*1928garren ekañeko 2an R.O. bidez Rosario Endeiza andereari domiña bat eskeñi eutsoen ospakizun ofizialetan erabilteko baimenagaz.

*Somateneko kide ziranak tiroketa saioak egiten ebezan, lenengotan Karraspio ondartzan eta geroago Eluntzeta inguruetan.

*Ez da ezagutzen liskarren baten parte artu ebenik.


*Diktadura desagertuz, ezabatu ziran onetariko taldeak be.

*Au dala ta Lekeitioko Alkate zan Mariano Adan de Yartzak 1931garren jorrailleko 15 an agindu bat kaleratu eban adieraziz erri onetako somatendar guztiek, goizeko amarrak baño lenago eukezan arma ta lergai danak eskuratu egiezala ta alan ez balitz zigortuak izan leikezela legearen arabera. Eta danak onartu eben agindu au.

J. Iñaki de Madariaga Vidal
Lekeition, 2007-VII-16
 (Munetxek euskeratua).



1.- Julián MINITIS, 2.- Valentín ESCRIBANO, 3.- Pío IRIBARREN, 4.- Jose Martín BARAINCA, 5.- Leonidas MARTINEZ, 6.- Francisco REGIDOR, 7.- Rosario Endeiza, 8.- Jesus RODRIGUEZ, 9.- Jose Ma AMUSATEGUI, 10.- Nicolás ESTEBANES, 11.- León OCAMICA, 12.- Samuel OLLAURI, 13.- LEGARRA, 14.- Hijo de Leonidas MARTINEZ.



Mutiltxu artean

Txo: Zuen aita gizon zeken-zekena dok.

Zegaitik da, bada, zekena?

Zegaitik? Zapataria izan, ta oiñetako zar-
zarrakaz abil !

Ire aita, barriz, gurea baño zekenago, eutsiago,
zikoitzago ta mizkinago dok, askozaz bere.

Zer dala-ta?

Zer dala-ta! Zuen aita agingiña (dentistea)
dala ta ire anaitxuak agin bat baño etxaukak!

(Azkuen ipuñia da)

A. ARRIEN

olerkia

Bizkaiko emakume ospetsuak

Gure edestian emakumeak beatzen puntan lez doaz. Ingurua gozotu egiten dabe, gizonak konturatu be egin bagerik, baiña ba-dagoz ondo agertzen diran andrak be. Oneik gogoratuko doguz emen, batzuk beintzat.

Lope de Vegak esan eban” emakumeei mugak ipintea, itxasoari ipintea lez dala ” eta Karmen Kondek diño “ gaurko munduan emakumea izatea ez dala gauza erreza: itzaltasuna zuretzat nai badozu, ez jo iñongo aterik, emon ostikadea eta sartu barrura”.

Baiña apur bat agertu diran Bizkaiko emakumeak ez dabe emon ostikadarik atean, iñor ez iraintzeko bideak artu dabez.

Sendia ta etxea zirala uste eben euren tokiak, gero toki oneik zabaldu egin ziran emekumearenak diran lanak egiteko, batez be beartsuai laguntzen.

Edertasuna be balio aundia zan Bizkaian eta gorantza joiala zirudian. Ara Fernando de la Kuadra Saltzedoren berbak” Bilbaoko andrak ederrak dira, maitekorrak, ekintzazaleak, garbiak eta arruntak. Guztiak ondo aziak, ondo jantziak,...emazte onoimentsuak eta ama egizkoak...”

Emakumeak pianu-jole izatea be ontzat egoan Bilbaon, baiña gitxi eldu dira ertilari onak izatera:

ORBEGOZOTAR MATILDE, isilla.

Berroetatar Juanen lauki margotuan dago, goibel, eta uste izan lei zoriontsua izan zala, Giocondaren antzeko barretxuagaz. Bertsoak idatzi ebazan, samintasunez, iñoz ez zirala argitaratuko uste izanik.



Andrea izatea, isilla izatea zan. Bilboren edestilariak argitara atera nai izan dabe, baiña ezin! Emakumea zan!

Itz lauz be idatzi eban. Antzerkiak be bai... baiña naikoa eban senarrari laguntzea, seme-alabak aztea, lagunak... Artuemonak... Lora eta arantza-artean bizi izan zan, aberatsa izan arren.

Eun urte igaro dira eta ez da agertu barretxurik bere irudian! 1837n. urtean jaioa zan, Bilbaoko San Nikolas ondoan; latiña, euskerea eta frantzerea ikasi ebazan, pianua joten be bai, pozik joaten zan eres-aldietara, antzerkietara eta operara. Eta irakurri, asko irakurri. 17 urtekoa zala irakurri eban lenengo olerkia erri-aurrean. Sorkunde Garbiari eskiñia zan. Maitasun-olerkiak be idatziko ebazan, baiña neska on batentzat erlejiñoa zan ona!

Gero luzaro isillik. Antonio Trueba bere lagunak berari buruz idatzi eban.

Berak izparringietan bere olerkiak ikustea nai eban baiña ez! Beste batzui bideak zabaltzea zan naikoa.

23 urtekoa zala ezkondu zan eta samintasunez diño erderaz:

Ez naz alegindu
Parnasora igoten.
Nik esku otzez
neure lira dot joten.

Bost seme-alaba izan ebazan eta euren artean Joakin izparlaria eta lenengo alabea olerkaria.

1869n. urtean Rita bere lagunari diñotso erderaz:

Urteak dira, urte asko
nire arpea lo dagoala.
Ez dau abesten
Abesti alairik.

Eta Becker gogoraturik diñotso Terango Markeseari erderaz

Auts-artean isillik
datza nire lirea,
maite-eskuetan
lokarturik.
Lenago negartia zan
usokume arrigarria.

Jose Julio de la Fuentek 1871n. urtean asko goratzen dau idazleen artean gure Matilde.

1891n. urteko agustuaren 9n. egunean il zan, 52 urte ebazala. Unamunoren lengusiña zan.

ANGELA FIGUERA AYMERICH.



Olerkaria au be, 1902n. urtean Madriden jaioa. Filosofia eta letrak ikasia eta irakasle izateko gogoia eukana.

1949n. urtean "Verbo" saria irabazi eban. Erromantiku-artean dago Gabriel Zelaiagaz eta geroago etorri ziran Gloria Fuertes, Blas de Otero, Cremer, Hidalgo, Hierro eta Noragaz.

MARINA LIKONA.

Loiolako Iñigoren ama. Ondarroakoa. Osagille baten alabea.

IBARRATAR RAFAELA.

1843n. urtean urterillaren 16n. egunean jaioa. Orduan Bilbao 900 etxe eta 18 000 biztanle ziran.



La Cava dago bere etxearen ondoan. Ortxe egin zan Rafaela soegille edo kontemplativa.

Gaztetan arintxua zan, eskotezalea, bitxizalea...

Laba Aundietan buru izango zan Jose Villalonga kataluniarragaz ezkondu zan, 18 urtekoa zala. Sei seme-alaba izan ebazan eta gerio il jakon aizteak itxi eutsozan berak azteko beste bost.

Apurka biurtzen joan zan: Goizean ordubeteko gogaldia egiten eban, gero mezea eta gero, bizitza osoan bere senarragaz barausi eta alkarrizketea.

Zortziretan asten ziran bere lanak eta egun luzeak ziran areek: Etxean 50 txiro artu ebazan, espetxera joaten zan, gaiso-etxeetara be bai, baita emagalduen etxeetara be. Ortik sortu zan “Angeles Custodios” erakundea. Guztiak euken amatzat!

Bizitza latza eroan eban.

1900n. urtean il zan eta gaur zoriondun edo “beata” da.

MARGARITA MATURANA

Bilbaon bizi zan merzedarien lekaide-etxean eta berak ikastetxe biurtu eban. Gero Berrizen euki eban onein etxea, baiña berak Txina eta Japon eukazan gogoan, orregaitik Erromara joan zan eta IX Pio aitasantuari eskatu eutson merzedariak misilari erakunde biurtzeko baimena. Eta pozik emon eutson Aita Santuak.

1934n. urtean il zan eta ordurako bere misiolariak zabal ebiltzazan munduan.

Aurten (2008) Bilbaoko Katedralean zorindun edo “beata” agertu dabe.



EULALIA ABAITUA

1853n. urtean jaioa da eta Eulalia bere amaren izena artu eban.



Uri zarrean bizi zan eta 19 urtekoa zala ezkondu zan. Lau seme-alaba izan ebezan.

Liberpoolera joan ziran eta bera argazkilari egin zan. Bilbaora etorri eta Begoñan asi ziran bizi izaten.

Argazki egokiak egitea zan bere guraria eta berritarak ikusten ebazan, Bilbaora esnea saltzen etorten ziranak, eta or eukan aukerea argazkiak egiten asteko.

Argazkiña lepoan eta ordularia garrian, Bilbaoko argazkaririk onenea biurtu zan .

Aldi areitako idazkirik ez balego, orduko bizi-modua argazki orreitan aurkituko litzake. Museo Etnografikoan dagoz argazki guzti orreik.

90 urtekoa zala il zan 1943n. urtean. Lenengo argazkia 1873n. urtekoa da eta azkenengoa, margo-duna, 1936n. urtekoa.

SANTA MARIA JOSEFA SANCHO GUERRA.



1871n. urteko uztaillaren 24n. egunean Norteko trenean iru emakume eldu ziran Bilbaora. Lemaik gazteak ziran. Urrengo egunean aurkitu eben San Antongo abadea zan D. Mariano Jose Iberguengoitia Zuloaga.

Ez zan iñor be peitzen. Maria Josefa Sancho Guerra gazteiztarra zan, 28 urtekoa, Sor Sakramento, 25 urtekoa eta Burgosko Mansillan jaioa eta Sor Konzepzion Avilako Arebalo errikoa. Bat be ez Bizkaiatarrik, baiña Madriden geratu zan Elorriokoa zan Frantziska Egu-ren eta Bidaniakoa zan M^a Soledad.

Guzti onein amesa zan Mariaren Mirabeak deritxon Eleiz-Alkartea Bilbaon sortzea, D.Mariano Jose lagun ebela. Gotzaindegiko onespena lortuta, sortu eben alkartre ori. Euren elburua gaisoi etxeetan laguntzea. Esperanza kalean ipiñi eben etxea eta bereala asi ziran lanean. Gero La Najan emon eutsen lekaidetxe zabalago bat.

Arik lasterrera izurria edo pestea sortu zan eta lan asko egin eben etxeetan Mariaren Mirabeak, eroina lez geratu ziran Bilbaotarren aurrean..

Maria Josefa Sancho Guerra gaur santea da eta Mariano Jose Iberguengoitia be bide orretatik doa, eleizbarrutiko ekiñaldia amaituta.

† OLAZARtar Martinek



Euskalerrria edo Euskadi

“Berezko sorterri
edo aberria da”
(I)



AURKEZPENA:

Mundu onen giza semearen artean antziñatik sartu giñan, nortasunezko eskubide eta norkerizko asmakuntzaren eztabaida bidez borroka latzetan, eta gaur oraindiño dan guztia batzangotu (1) gurean gabiz, Norkerizko diruaren serbitzura.

NORTASUNA, Jaungoikoak Gai-bizi onetara, Berak oiñarritutako ordezkko Legean eragille (2) lez bialtzen gaituenetik, Bereztasunaren legezko (3) antzokian sartzen gaitu, ordezkko arduratan ezartzen gaituelako, eta Lege ori danontzat bardña izanda, iñork ez dauka eskubiderik beren naierara ezer egin edo asmatzeko.

Bizi onetan, egin bear doguzan gauza guztietan agertzen jakuz gai lege orre in argitasunezko xee-tasunak, eta edozer gauza Bere Lege bidetik kanpo egiterakoan, dana amaitzen da azken gaizto edo utsegite baten, eztanda eginda.

Gure gizartearen lotsagizunezko arremonetan bardin sortzen da, bakoitzaren eskubideak euren neurrian ez badoguz on ordezkutzen, zorigaitz edo zoritxarreko atek zabaldu egiten doguzelako beti.

Orregaitik, nortasunezko izaera aipatzen dogunean,

ez dogu aipatzen gizon emakumearen itxura baka-rrik, baita Jaungoikoak gai bizi onetan bereztutako legea elburu dogula, bakoitzak bere gizabarne bizi bidetik egin bear dauazan gauzak, zentzun osoan edo urbiltasunean egiten dogunagaitik neurtzen dalako Nortasunaren baita (4).

NORKERIA, Jaungoikoak gai ludi oneri bereztuta ezarrutako legearen guztiz aurkakoa da, oker edo norberkeriz arrokerizko sasijakintzan asmatzen doguzan gauza guztiak, lapurkeri utsean biurtzen diralako, Berak gai (5) osoari ipinitako legeari, eta bai beren gaiñean bizi garan guztiei.

Gaur, mundu onen bizitz osoari, txoriaren begiral-di bat emon ezkerro, edo daukaguzan argibideakaz jakintsu egonda, ez gara lotsatuko egiten dogunagaitik ?.

Ezetz esan leike, goimaillako jakintzan artzen diran erabagiak, agintaritzari ta merkataritzazko diruari begira bideratzen dabezelako erabagi orreik, eta orren esan naia, norkeriaren morroitasunezko aldi-rra eroan gure gaituela geienari, batzuk sasi-jainko-tasunean bizi daitezen.

Jainkoaren Legea ortze dago baiña, eta nik, uste dot topo egin dogula berarekin.

(1) *Batzangotu* = globalizar. (2) *Eragille edo kudeatzaille* = gestor. (3) *Bereztasunaren Legea* = Ley de esta Naturalización material, o el derecho de la misma en su comprensión. (4) *Nortasunaren baita* = conciencia de la persona en la realización de sus actos. (5) *Gai* = materia de esta creación.

BEREZKO "BAITA".

Jainkoaren Legeari begira, bizi onen milla urte askotako egilletasunaren edestiko etorkizunean artu genduan gure Arimetan daukagun Euskaldun Baita (2).

Menderatzailleak euren elburuak lortzeko, guzurragaz, zirriborrotu egin gura dauana.

Ezinezkoa da baiña.

Gure bizi ekintzan noz konturatuko gara, azpiegituraren (3) egilletasunerako (4), gai bizi onek aukera azkoko ditekeen (5) lege edo oiñarri (6) bidez, aurkezten dauskuzan gai gauzakaz bakarrik balio bear garela ?.

Ba aldaukagu beste aukerarik?.

Gaur asko dakigu egilletasunaren gora beran, gure jakintzazko arloan zeaztasunezko zertzelada asko daukaguzelako.

Eta gure ekintzaren aukerarako jakintza orreik, amaibakoa izanez gain, aukera bakoitzagan ditekeenak be, beste amaibako zabal-tasun aurrean aurkezten gaitu.

Irazale edo Sortzailleak al gara ?.

Asmalarien aukera baiño besterik ez daukagu.

Gure antolakuntzazko egin-kizuna orregaitik, gaiak zeaztasunezko berezikuntzan aukeratu egiten dauskuenak oituratzeko edo, gure jakintzazko agerbidean zeaztasunezko gauza orreik ezartzeko, euren izatasunezko nortasunean ezaugarritzko izenakaz antolatuta gorde egin bear doguz, bestela, olan ez balitz, gure egilletasunezko lana korapillotu edo ezinezkoa biurtuko litzake.

Mundu onetan, gaituta gagozan gizon emakumeen artean bardin sortzen da.

Gizaren bakardadezko zabaltasunean **JAINKOAREN LEGEARI** begira, eta euren leiñuzko sorkuntzan azturazko jakin bidean, gure artuemo-

neko zentzuak alan eskatzen daualako, bakotxaren izenezko izatasunekaz bear dan antolakuntzan, legezko edo jatorrizko adierazpena emon geuntson bizitz oneri.


Besterik al geinke ?.

Eta munduko gizaren zentzua, nai ezberdintasunezko itxuran edo ta, ezberdintasunaren izenezko nortasunekin agertuta bardiñantzekoa bada, ori al da arrazoia, batzuen sasi norkerizko naikeriagaitik, sinismen guzti orreik eta izatasunezko nortasunak, batzangotasunaren sasi asmo orren bidez indarkeriz ezereztuteko ?.

Nora joan edo zer egiteko daukagu ainbeste estura edo larritasunagaz ?.

Mundu onetako gizasemeak beartuta gagoz, guzti-en adimendu edo ulermen bateko elburura eltzera, munduko lur au bakarria izanez gain, danon ardu-razkoa dalako.

Baiña ez, mendeko sasi asmalari oiek esaten dabelako.



Gaituta gagozan gizaseme guztiak, sinismeneko ulermen orreitarara eldu bear garalako baizik.

Noz ?.


Danon ulermeneko elburu orreitarara eltzeke aokatuta gagozan lez, gure biziko ekintzak Beren Legeari begira, eta esku-bidearen ordaiñak lots aundiko ekanduan ordezkatzeko, bere denbora bearko dabe. Gauza orreitan ariñeketeak ez daulako balio.

Eta gizaseme alabaren zor eskubideko jokoa izanda, ekanduzko ekin bidean, elburuzko ulermen orreitarara eldu bear garalako.

JAINKOAREN legea bada, zergaitik edo zer billa sartzen gara Bere gauzatan ?.

Mundu onen bizitzako edesti aldiak belaunez be-laun bardiñak dira, belaun aldiko gizaldi bakotxaren arrazoizko antzezlariak eragille lez, ez daukielako

(1) Batzangotasuna = globalización. (2) EUSKALDUN BAITA = conciencia vasca. (3) Azpiegitura = infraestructura, subestructura. "Infra" = debajo, "Estructura" = base de un edificio, o, cosa que queremos hacer. (4) Egilletasuna = gestión. (5) Ditekeen = posibilidad. (6) Oiñarri = premisa, base de lo que se puede inferir, o, hacer otra cosa.



beste ardurarik, gai bizi onek orokor daukazan eskubideak, Jainkoaren ekanduzko legean lots eta ardura aundiz on ordezkatu baiño besterik ez.

Batzuk esaten dabe: “Zelan izango dira sorkuntzazko edo paleolitiko denborak gaurkoakaz bardiñak, areik abere antzeko bizitza baten bizi ba ziran?”.

Jainkoak ipinitako Lege bidetik len da gaur, agindu bakarria agertzen dalako ezere aldakuntza barik.

Ala gaur, bizitzaren jarrai bidean azturazko jakintzan len baiño aurrerakuntza geiago lortu arren, len baiño geiago ote dakigu?.

Dana dala, or dago **JAUNGOIKOAREN** legea eta gai oneri ordezkatu bear dautzuzan zor eskubideak.

Beste aukerarik bai ?.

MUNDUAN.

Orregaitik mundu onetan, norkerizko asmakuntzan dabizen menperatzaileak eta guda indarragaz dabiltzan batzangotasunezko alegiñak, alperrezkoak biur-tzen dira.

- 1) Maltzurrezko asmo orreik, gaur erabilten diran lez, zentzuzko bidetik kanpo guzurrezkoak izanda, sekula ezin dira egizkoak biurtu.
- 2) Jainkoaren legeakaz gure bizitza, naita amaibako aukerazkoa izan arren, arduraren zentzuzko bide estu baten sartuta, egitik guzurrera oinkada txiki bat baiño ez dago.
- 3) Eta bereztasun oneri begira, or baieztatu ziran benetan, gure izatasunezko arimaren baitak, guzurra eta egia zer dan ondo jakitera elduta.

JAINKOAREN gauza izan da, oldoztu al geinke, Lege orren aurka egin geinkela ?.

Bide ortatik alegintzen garenean, buruak apurtzen doguz bere aurka.

Mundu onetan, iñor ez dalako nor bere asmakisunezko legerik egiteko, Izadi oneri Jainkoa Berak ipini eutsozan legetik ez ba dira artzen.

Eta orregaitik, iñor ez da nor, iñoren ardurazko zor eskubideakaz, maltzurtasunez jokatzeko.

EUSKALERRIA.

Mundu oneri, Euskalerrria da Paleolitiko Neolitiko bitartean lortu zan jendekuntzazko demokratikoagaz, adierazpen ederrenetariko bat emon dautsona.

Eta askatasunezko demokrazi orren sinismenekoia izanda, ez dau bear iñoren beartasunik danon ulermeneko elburura eldu daiten.

Iñoren izatasunezko nortasuna galdu barik baiña !.

Euskalerrriak beste errigizarteak lez, sinismenaren nortasunezko euskereagaz daukazan legezko arrazoiak, berak azaldu bear dauzalako, erri ezberdiñen alkar ulermeneko antolabidera eltzen garanean.

Euskalerrria politikan, orregaitik da NORBAIT, edo NORTASUNEZKO eragillea bere zor eskubidearen ordezkartizan, eta iñork ez dauka eskubiderik bere ardurazko eragilletasunetik baztartuteko.

OARKUNTZA.

Euskalerrriko izaeraren eskubideko arrazoi au izango da, gure edesti ta European erabili diran politikak argituz, bost sei idazki laburretan "ZER" aldizkarian illero agertuko dodana.

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.011n Urtarrillaren 12an



#Euskaldun barrientzat

Zazpi utsak



Sudoku

4			3			7		9
	2		9		7	6		8
	9			4			2	
						4		1
			7		9			
1		2						
	5			7			1	
7		9	1		5		8	
6		4			2			5

5	7	3	2	6	9	8	1	6
4	8	1	6	5	2	8	4	7
2	5	8	4	7	3	6	9	1
7	1	6	2	5	3	4	8	9
8	4	3	7	1	9	5	6	2
9	7	5	2	8	6	4	3	1
5	9	7	6	4	8	1	2	3
3	2	1	9	5	7	6	4	8
4	8	6	3	2	1	7	5	9

Ikasten



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar


..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Ikusi mendizaleak
baso eta zelaiak,
mendi tontor gainera
igon bear dogu.
Ez nekeak, ezta bide txarrak
gora, gora Euskalerria.
Gu euskaldunak gara
Euskalerrikoak.

emen mendi tontorrean
euskal lurren artean
begiak zabaldurik
biotza erreta.
ain ederra, ain polita da ta,
gora, gora Euskalerria.
Gu euskaldunak gara
Euskalerrikoak.

Anboto mendia